



TXIKITXIKI!

2023ko urtarrila 213. zenbakia

B A N D O A

Eihartarrok,

Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum, L'engua Basca, Lengua Vasca, Lingua Vasca, Langue Basque, мова баскаў, Basque Language, Baskische Sprache, Baskich, बास्क भाषा, език баски, Wika Ng Basque, Baski, Baszk Nyelv, बास्क भाषा, Basgeg, バスク語 Baskijski Jezyk, лимба баска, Język Baskijski, баскијски језик, Baskiska, ႣႠႱႪႫ, ဟာဏ်, Gjuha e Baskesë, Баскська мова, 巴斯克语, Limba Bască, زبان باسکی, ژبه باسکی, Língua Basca, Làkku Baskees, لاسكيا, الباسكية اللغة, Euskera, Euskara esaten dioguna:

es mi lehua

tu lehua



**BELAUNALDIZ
BELAUNALDI
EUSKARA AHOAN**

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	11-13
IKASLEEKIN	4-5	ZER IRAKURRI	14
BERRIKETAN		BITXIKERIAK	
IKASTETXEETAKO	6-7	IPUINA	15
BERRIAK		ZU BAI MARGOLARI ..	16
AITXITXAKIN BERBETAN. .	8-9		
SUKAL-SALTSAN	10		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Mariella Saitz

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Pertsona bat okindegira doa urtarrilaren 1ean eta esaten du:

- Ogirik badakazue?
- Eta okinak esaten dio:
- Bai, baina iazkoa da.



- Badakizu nola esaten den “ez dut ulertzen” japonieraz?
- Ez.
- Nintendo.

Andereñok Mikeli:

- Nola banatu ditzakezu 3 patata 10 lagunen artean?
- Oso erraz. Purea egiten.



Zer esaten dio harri batek beste harri bati?

- Zein gogorra den bizitza.



Aitona bat joan zen futbol partidu bat ikustera baina ez zuen ulertzen. Orduan esan zion ondokoari:

- Gazte horiek pelota batengatik lehiatzen ari dira?
- Bai.
- Eta zergatik ez diete ematen bakoitzari bat?

Kartzelako preso batek galdetzen dio besteari:

- Zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako irtetzen uzten.





IPARRIZARRARI HELDUTA, IPARRA GALDU GABE



BIDEOA



Iparrizarra aitzakia hartuta itsasontzietz, Elkanoren bidaiatz, astronomiatz eta beste hainbat gauzetatz jardun du La Salle Isasiko ikasle talde honek.

PAULA LEON,
11 URTE



Klasean 'Iparrizarra' izenekoa proiektua landu dugu eta, besteak beste, Elkanok eta Magallanesek orain dela hainbat mende egindako mundu biraren inguruan asko ikasi dugu. Beraz, bertan ikasitakoaren berri emango dizuegu jarraian, klasean egindakoa azalduz.

MARTIN GIJONS,
10 URTE



Antzina, Iparrizarra oso garrantzitsua zen nabigatzaileentzat. Izan ere, Iparrizarrak iparraldea non dagoen zehazten du eta horren arabera nabigatzen zuten. Esan daiteke, gutxi gorabehera, sasoi hartako GPSa zela.



**MARTIN
ASTIGARRAGA,
11 URTE**

Honen guztiaren harira, eskulan batzuk egin genituen. Gure gelan, adibidez, hiru konstelazioekin kartel bat egin genuen: Hartz Txikia, Hartz Handia eta Kasiopea. Iparrizarra Hartz Txikia konstelazioaren barruan dago eta beste gela batean Hartz Txikiaren kartela egin zuten, hobeto ikusteko nola dagoen osatuta. Gero, Elkano, Magallanes eta Colonen espedizioak moduren baten irudikatzeko, itsasontzi batzuk egin genituen



**MARA PRIETO
10 URTE**

Eskulanak egin ondoren, konstelazioen karteekin eta itsasontziekin erakusketa bat egin genuen patio txikian. Horrela, eskolako ikasleek gure lanak ikusi ahal izan zituzten. Horrez gain, gelaz gela joan ginen egin genuena azaltzen.



**MARTIN BASKARAN,
10 URTE**

Magallanesen eta Elkanoren inguruko animaziozko pelikula bat ere ikusi genuen. Bertan euren historia kontatzen zen eta, gero, bertan emandako datuak eta informazioa liburu baten apuntatu behar izan genituen.



**GARAZI EGURROLA,
10 URTE**

Magallanesen eta Elkanoren bira irudikatzeko, gainera, antzerki bat egin genuen. Euren espedizioan bizi izandakoa azaltzeko, Elkano eta Magallanesi egindako elkarrizketa antzeztu genuen.



URKIZU

Gabonen aurretik, LHko 5 eta 6 mailakoak “Itsasoa gaixorik dago” dokumentala ikustera joan ziren Coliseora. Egoera kezkarria dela konturatu ziren. Abenduaren 22an Olentzero eta Maridomingi etorri ziren gure eskolako txikienei opariak ekartzera eta umeek pozik hartu zituzten ekarritako jostailuak. Urkizu auzoko inguruak alaitu genituen gure kantu eta musikarekin eta kalejiraren ondoren Gabon Postal lehiaketaren sariak banatu genituen. Urtero bezala oso postal politak egin zituzten gure ikasleek. Opor bueltan Haur Hezkuntzako umeek “Grufaloa” filma ikusteko aukera izan dute, gomendagarria benetan!



ARRATEKO ANDRA MARI

Hemen gara berriz bueltan, urte berria gogoz hasteko eta jada baditugu hainbat ekintza eta irteera prestatuak. Urtarrilaren 18an Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleak Ipurua bisitatzera joan ziren SD Eibar Fundazioak sustatutako “euskararen baloia” proiektuari jarraipena emanaz. Urtarrilaren 23tik otsailak 3ra arte, Lehen Hezkuntzako 1.2.3 eta 4. mailako ikasleak kiroldegira joango dira igeriketa ikastaroa egitera. Eta urtarrilaren 16tik 20ra bitartean, 3. zikloko ikasleek Genero berdintasunaren inguruko tailerra izan dute eskolan bertan Hezkidetu programaren eskutik.

AMAÑA



Amaña eskolan, gabonetako oporrak baino lehen, ekitaldi berezi-berezi bat antolatu genuen Aspanogikoekin eta bere inguruan lanean dabiltzanekin (Txaka, Pirritx, Porrotx eta Marimotots): eskola osoa Piratak bilakatu ginen!!! Hasieran, Txakak haurren minbizia ikustarazteko antolatzen dituen bizikleta bueltaz hitz egin zigun; ondoren Pirritx, Porrotx eta Marimototsek bideo sorpresa bat bidali ziguten eta hori ikusi eta gero, Aspanogiko arduradunetako baten aurrean, eskola osoak Pirataz jantzita, dantza bat eskaini genion. Hau egun berezia eta hunkigarria bizi izan genuena!!!



ITURBURU

Urte berri on danori! Bueltan gaude berriro! Oporretara joan aurretik Olentzerok eta Mari Domingik bisitatu gintuzten, eta oso une politak eta hunkigarriak bizi izan genituen. Oporrak amaitu dira eta bueltan, Iturburu, "Gaur be Euskaraz" eguna ospatu genuen, urtarrilaren 9an. Egitarau zabala izan genuen: mahai-jokoak, ginkana, pelikulak ikusi genituen euskaraz, ipuin-kontaketak ere izan genituen eta baita karaokea ere! Nagikeria kentzeko oso modu ona izan zen, eta indartsu ekin diogu berriro ere ikasturteari!



SAN ANDRES

Kaixo, lagunok! Zer moduz pasa duzue oporretan? Espero dugu ondo ibiliko zinetela. Orain bueltan gatoz indarberriturik! Baina oporren aurretik hainbat gauza egin genituen. Esate baterako, abenduaren 23an, oporrak hartu aurretik, bisita berezia izan genuen. Eskolara Olentzero eta Maridomingi etorri ziren eta algarra eta txaloen artean ikastetxeko ikasle txikienek harrera beroa egin zieten. Eskolako aretoan elkartu ginen, eta, galdera pilo bati erantzun ondoren, eskolarako ekarritako opariak banatu zituzten. Oso egun berezia izan zen!



LA SALLE

Gabonak bukatu dira eta hemen gaude bueltan, berriro martxa hartzen. Oporrak topera disfrutatu eta gero hasi gara berriro eskolaz disfrutatzen. Alde batetik LH4 eta LH5-ekoak Coliseora joan dira Tinkoko film bat ikustera. Eguraldiak lagundu ez arren poz-pezik joan ziren denak. Bestalde, LH1-eko ikasleek aitxitxa eta amama batzuen bisita izan zuten gelan. Euren garaiko eskola nolakoa zen kontatu zieten. A ze nolako aldea dagoen sasoi hartako eta gaur egungo eskolen artean, ezta?



ALDATZE

Urte berri on! Aldatzeko ikasleak ere bueltan gaude oporrak eta gero, gauza pila bat egiteko gogotsu! Urtarrilaren 13an, esate baterako, LH3 eta LH4 mailetako ikasleak zinean izan ziren. Urtero bezala euren mailako interesei bideratutako gaia aukeratu dute. Aurten "Elcano, la primera vuelta al mundo" pelikula ikustera joan dira. Horrez gain, LH6-ko ikasleak "Inspira Stean" saioekin hasi dira. Landuko dituzten arloak honako hauek izango dira: Emakumeak Zientzia, Arte eta Teknologia arloetan duten papera; Estereotipoak; Neskek beren buruarekiko duten pertzeptzio propioa; Erreferente emakumezkoak; Lanbide ezberdinak ezagutzea...





MIKEL LARRAÑAGA:

"Zer egin euskara bultzatzeko? Egin eta kitto, kontxo!"

Mikel eta Unax aitxitxa-bilobak elkartu ditugu oraingoan. Iturburuko 6. mailan ikasten dihardu Unaxek eta bertan hartu du aitxitxa, eskolan. Pozarren erantzun ditu Mikelek erantzun guzti-guztiak.

Kaixo, aitxitxa, zer moduz? Zer iruditzen zaizu elkarrizketa hau?

Oso esperientzia polita da. Nire lanarengatik elkarrizketa asko egin dizkidate, baina duda barik hauxe da egin didaten elkarrizketarik politena eta garrantzitsuenena.

Non jaio zinen? Zelakoa zen zure familia?

Grabadores kalean jaio nintzen. Aita Justo zen, ama Valen eta lau anai-arreba ginen.

Ze giro zegoen Eibarren?

Oso latza. Ni jaio nintzenean amaitu berri zegoen Espainiako gerra. Gu galtzaileen aldean geunden eta galtzaileoi egurra eman ziguten. Francok euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia zuen guztia desagertarazi nahi zuen.

Nolakoa zen orduko Eibar?

Oso desberdina. Herri guztia txikituta zegoen, bonbardaketengatik. Eliza eta fabrika batzuk ez ezik, dena txikitu zuten. Ez zegoen furgonetarik eta halakorik. Zaldiek tiratutako egurrezko gurdietan garraiatzen ziren gauzak; hozkailurik ere ez; izotza erosten genuen eta, etxean, izotz gainean jartzen genuen jatekoa. Telebistarik ere ez zegoen, ezta telefonorik ere. Lagun bati zeozer esan nahi bagenion, bere etxeraino joan behar izaten ginen, eta, adibidez, Zarautzeko lehengusuari zeozerren berri emateko, gutuna idatzi behar izaten genion.

Zertan desberdintzen zen gaur egingo Eibartik?

Garai hartan denok ezagutzen genuen elkar, izen eta abizenarekin.



Zer ekarriko zenuke orduko Eibartik?

Ziurtasuna. Lehen peora guztiak zeuden zabalik, eta ez hori bakarrik, etxeko atea ere txingete eta soka batekin ixten zen, giltz barik sartzeko moduan. Lehen umeak edo emakumeak ordu txikitan lasai ibili ahal ziren kalean, gaur egun denok dakigu zer gertatzen ari den...

Zer ez zenuke ekarriko orduko Eibartik?

Pobrezia. Sasoi hartan jendeak gosea pasatzen zuen, gerra ondoko ondorioak...

Zer aldatuko zenuke gaur egungo Eibartik?

Gauza asko ez. Baina zeozer kentzekotan aldapak kenduko nituzke, lautu egingo nuke herria (barreak).

Nola gogoratzen duzu eskola-sasoia?

Fraile artean beti. Isasiko fraileekin ibili eta gero,



7 urterekin Nafarroara bidali ninduten, interno. Diziplina zorrotza zen eta gauzak ez bagenituen euren nahi zuten bezala egiten zigor fisikoa jartzen ziguten.

Zertara jolasten zenuten?

Foballian kalean egiten genuen, lehen ez zegoen-eta gaur bezain beste auto. Horrez gain, txirrindularien argazkiak txapetan jartzen genituen, gero zirkuitoetan karrerak egiteko. Eta mendian hartzen genituen adar zuzenekin ezpata zoragarriak egiten genituen. Lehen etxekolanik eta halakorik ez zegoen, eta egun osoa ematen genuen kalean jolasten, amak bentanatik deitu arte.

Zein izan da azken urteotako asmakizunik onena?

Komunikazioa orokorrean. Harremanak eta komunikazioa asko erraztu dira. Munduko leku batean zeozer gertatu eta momentuan bertan dakigu denok zer gertatu den. Telebista, faxa, Internet, arlo digitala... Aurrerapen demasa egon da. Alde txarrak ere baditu, baina gauza askotarako asmakizun inportantea izan da.

Birziklatzen zenuten?

Dena, arropatik hasita. Anai-arreben artean elkarri pasatzen genion arropa, zuloren bat eginez gero, amak josten zigun, zapata apurtzen bazen konpondu egiten zen... Kristalezko botilak erabiltzen genituen, dendara hutsik eraman eta berriro betetzen genuen... Plastikorik ia ez zegoen.

Genero-berdintasunean zenbat aurreratu dugu?

Askok, baina oraindik asko dugu egiteko. Etxekolanak emakumeen kontua ziren. Gaur egun zuk ikusten duzu aitaxo oheak egiten,



erosketak egiten... Soziedadeetara ere ezin ziren emakumeak sartu eta nik 20 bat urte nituenean hasi ziren praktikak erabiltzen.

4 urtez izan zinen Eibarko alkate. Nolakoak gara eibartarrak?

Munduan ez dago Eibar modukorik, eta eibartarrak onenak eta jatorrenak gara (barreak). Gainera, eibartar izatearen harrotasun-puntua daukagu eta munduko edozein txokotara eramaten dugu eibartartasun hori. Oso langileak ere bagara; egin kontu, gerra amaitu eta hamabost urtera berriro jarri zen martxan herria, eta Espainia osotik etorri zen jendea lan bila.

Alkate zinela atera zenuten “Euskeraz eta kitto!” bandoa, zergatik?

Konturatuta eta arduratuta geunden askok, jakin arren, ez zutelako euskaraz egiten, euren artean erderaz egiten zuten. Kanpotik ere jende asko etorri zen eta haiek ere euskaraz egitea nahi genuen. Baina, nola eskatuko genien hori guk egiten ez bagenuen? Eta herritarrengana iristeko bandoarena ideia ona iruditu zitzaigun.

Zelan ikusten duzu euskararen egoera gaur egun?

Gasteen kasuan, adibidez, arlo digitalean ordu asko ematen dituzte, baina erreferente euskaldunik ia ez dute, eta heldu askok ere, nahiz eta jakin, ez dute erabiltzen. Zer egin erabilera bultzatzeko? Egin eta kitto, kontxo!

Mailaz igoko al da aurten Eibar?

Dudia ala?



Kalabaza- eta gazta-bolatxoak

Gabon osteko betekada arintzeko, pare bat errezeta osasungarri proposatu nahi dizkizuegu. Erraz-erraz egingo dituzue, on egin!

OSAGAIK :

- 300 g kalabaza
- Tipula ½
- Arrautza 1
- 75 g gazta birrindu
- Gazta-dadoak
- 50 g ogi birrindu

NOLA EGIN:

- 1.- Egosi kalabaza. Behin egosita ur guztia kendu eta txikitu.
- 2.- Tipula txikitu eta oliotan berotu bigundu arte.
- 3.- Ontzi batean nahastu kalabaza, tipula, gazta birrindua eta arrautza. Ogi birrindua gehitu pixkanaka eta nahastu berriro. Estali eta sartu hozkailuan 20 minutuz.
- 4.- Hartu masa eskuetan eta sartu erdian gazta-dadoa. Itxi eta bola itxura eman. Ogi birrindutik pasa eta oliotan frijitu. Hobe da olio oso beroa ez egotea, horrela bolatxoak barrutik berotuko da gazta urtzeraino. Utzi paperezko serbilleta baten gainean gehiegizko olio kentzeko eta listo!



Mango, jogurt eta chia-hazi basotxoak


TI-TA




4 basotxorako osagaiak: mango ertain eta heldu bat, lima bat, jogurt natural bat edo soja-jogurta, bainailla-esentzia tanta batzuk, bi koilarakada chia-hazi, katilu bat esne edo edari begetal (oloa, soja, almendra, arroza..), ezta. Lehenik eta behin chia-haziak hidratatuko ditugu; edari begetal edo esnetan utzi gutxienez 30 minutuz. Ateraiozue mamia mangoari eta ondo txikitu. Ezti pixkat gehitu eta nahastu ondo. Mango-pureari gehitu lima erdiaren zukua eta basotxoetan isuri. Jogurtari gehitu bainailla eta nahastu. Gehitu mango-kremari. Chia-haziak jarri gainetik. Hotza zerbitzatu.



5 DESBERDINTASUNAK




LABIRINTOA





ZENBAT BALIO DU FRUTA BAKOITZAK?



MARGOTU



Koroak - 2
 Baxero - 2
 Horia - 1
 Urdina - 3
 Arrosa - 4

KOPIATU MARRAZKIA





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **OTSAILAK 14** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA


Aupa XANET ARRIZABALAGA txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

**Eid al fitr-eko oparia** 6 urtetik aurrera

Ramadana amaitzean islamiarrek egiten duten jaia da Eid Al Fitr. Ohikoa da orduan opariak egitea ere. Gure hiru ahizpa protagonistek eskuzabal jokatzek zoriontasuna dakarrela ikusiko dute. Ipuina bi hizkuntzatan dago: euskaraz eta arabieraz.

**Ezinbestean, ahizpak** 8 urtetik aurrera


Wendy nire ahizpa nagusia da. Eta ni Marine naiz, txikia. Inoiz ez dut jakingo imitatzen nauen, kuxkuxean ibiltzeko nire egunkariaren giltzarrapoa apurtzen duen edo ahal duen guztietan arropa lapurtzen didan... Ahizpa txikia izatea zer den. Izugarri gustatuko litzaidake ni izatea neure ahizpa txikia... Ni neu izateko ahizpa!

**Irri egin** 10 urtetik aurrera

Raina seigarren mailan dago, eta normala izan nahi du, besterik gabe. Baina, gau batez, eskauten bilera baten ondoren, estropezu egin eta ebakortzak hausten ditu. Ondorengo hilabeteak jasanezinak izango dira berarentzat: ebakuntza bat egin beharko diote, eta metalezko bracketak, buruko arku itsusi bat eta hortz faltsuak jarriko dizkiote...

**BITXIKERIAK**

Behiak 25 urte arte bizi daitezke. Musikaz gozatzen dute eta erlaxatu egiten dira musika entzutean.



Ilargia eguzkia baino 400 aldiz txikiagoa da.

Urtxintxek milioika zuhaitz landatzen dituzte, intxaurrak lurperatu eta bertan ahazten dituzte-eta.





SUPER ALMA

Bazen behin txakur bat deitzen zena Alma. Behin batean Alma lasotik zebilen eta derrepente harri bat aurkitu zuen. Etxera heldu zenean harria hasi zen dirdira egiten eta Almak pentsatu zuen igual magikoa zela. Orduan, baten bat hasi zen hitz egiten eta Alma beldurtu egin zen. Almak goxoki bat aurkitu zuen eta jan egin zuen. Alma lotara joan zen, ze oso nehatuta zegoen. Hurrengo goizean esnatu zenean, ezin zuen sinestu... Super Alma bihurtu zen!!

Marina Iraola. 2. maila



ZU BAI MARGOLARI!

